**SAIL OFIZIALA** PATRICIA LÓPEZ ARNAIZ

# López Arnaiz: “Aktoreak oso izaki gardenak gara, dena nabaritzen zaigu”

SERGIO BASURKO

Patricia López Arnaiz aktorea ez da arrotza Zinemaldian. *Los destellos* filmarekin 2024an Zilarrezko Maskorra irabazi zuen. Urtebete geroago, *Los domingos* filmak Urrezko Maskorra lortu zuen, eta aurten berriro itzuli da Sail Ofizialera, baina oraingoan bestelako eginkizun batekin: epaimahai ofizialeko kide jardutea.

“Elkarrekiko errespetuzko giroa daukagu epaimahaian. Bakoitza herrialde batetik gatoz, oso kultura ezberdinetatik; bakoitzari atentzioa halako honek edo beste horrek ematen dio. Egia esan, asko ikasten ari naiz, ofizioko beste kideek zinema nola aztertzen duten ikusita”, azaldu digu.

Erantzukizuna izan da sentitu zuen lehenengo zimikoa: “Hasieran ez nengoen seguru epaimahaiko lana egiteko kapaz izango nintzenik, baina lagunek eta ingurukoek adoretuta aurrera egitea erabaki nuen. Azken batean, nire ikuspuntua beste profesionalekin partekatzea da. Aukera hau opari bat izan da eta oso eskertuta nago”.

Hainbeste urtean etorri eta gero Patricia “familiakoa” balitz bezala sentitzen da Zinemaldian: “hemen etxean nago”. Aktore gasteiztarraren iritziz, “Donostiakoak ez du beste jaialdiekin zerikusirik, askoz lasaiago ibil zintezke kaletik eta aretoetan. Hala ere, aurten ohartu naiz nola aldatzen ari den nire estatusa, batez ere, publikoarekiko. Gero eta ezagunagoa naizela sentitzen dut”. Eta hori ez du oso gogoko, festibaletako photocall eta glamour kontuekin ez baita oso eroso sentitzen.

“Ez epaimahaikide gisa bakarrik, baizik eta beti gozatzen dut beste aktoreen lana ikusten, agian lanbidearen ajeengatik. Larruko zerbait da haien presentzia eta misterioa sentiarazten didana. Baina, aldi berean, filmak harrapatu egin behar zaitu”, adierazi digu.

Eskuarki, Arnaizi rol dramatiko eta intentsuak egokitzen dizkiote: “Ez dakit nik aukeratzen ditudan ala paper dramatikoek aukeratzen nauten ni”, barre egiten du. Pertsona irekia eta iragazkorra naiz, gauzak hunkitu egiten naute eta uste dut enpatikoa naizela, eta pertsonaien lekuan jartzen badakidala; eta oso pertsona gardena naiz. Are gehiago esango nuke: aktore gehienak izaki gardenak gara, dena nabaritzen zaigu”.



IÑAKI LUIS FAJARDO

Egia da bere ibilbidean halako pertsonaia asko hezur-mamitu dituela, eta oso gustura sentitu dela horietan.

Pertsonaia konplexuak interesatzen zaizkio, kontraesanak dituztenak, barruan gatazkaren bat dutenak. Aitzitik, noizbait erregistroz aldatu eta komedia bat egitea gustatuko litzaizuke?, galdetu diogu. “Horixe gustatuko litzaidakeela komedia bat egitea, ni nire bizitzan pailazo hutsa naiz. Hala ere, oso zaila da komedia egitea; gogo handia dut, baina oraindik topatu egin behar dugu elkar komediak eta biok”.

Emakumezko zuzendariek, haren ustez, adimen emozional handiagoa izan ohi dute eta harremanen konplexutasuna hobeto antzematen dute: pertsonen artean zer gertatzen den, zer dagoen hitzen atzean eta lotura horiek nola eragiten duten. Zuzentzerakoan, gainera, informazioa oso zehatz ematen dutela dio, pertsona bakoitza ez ezik, haren inguruko harreman-sare osoa ere kontuan hartzen dutelako.

Patricia hunkitu egin da galdetu diogunean zer esango ziokeen orain hamasei urte *80 egunean* filmarekin zineman hasiberri zen Patricia gazte hari: “Bere burua asko zaintzeko esango nioke. Bere beldurrengandik babestu nahi nuke”. Emozioek gorputz osoa zeharkatzen dioten Arnaizek aitortu digunez, oraindik orain ez ditu bere segurtasunik eza guztiak gainditu: “Oraindik ez dut asmatu sentipen hori nola eraman. Horrelakoa naiz eta zama horrekin noa”.

---

**SECCIÓN OFICIAL · PRESIDENTE** IRA SACHS

# El cine visto como ventana que se abre a ventanas que se abren a ventanas



JOKIN FERNÁNDEZ

GONZALO GARCÍA CHASCO

Muy vinculado al Festival de Sundance, donde en 1996 presentó su ópera prima *The Delta*, y por donde han pasado buena parte de sus obras más reconocidas como *Forty Shades of Blue* (2005), que ganó el Gran Premio del Jurado, *Keep the Lights On* (2012) o *Passages* (2023), Ira Sachs es un gran referente del cine independiente norteamericano. En Donostia lo hemos tenido en la sección Perlak con *El amor es extraño* (2014), *Verano en Brooklyn* (2016), y este año con *The Man I Love*, en una edición en la que su presencia se multiplica, presentando su nuevo film o participando en las Conversaciones de Nest. Además, es el flamante presidente del Jurado de la Sección Oficial.

**¿Tiene experiencia como presidente de un jurado?**

Sí, y además fui presidente de la Federación de Jóvenes del Templo de Memphis, y te puedo decir que ésa es una buena formación [ríe]. Creo que la razón por la que puedo ser un buen presidente es que soy buen organizador. Básicamente, mi trabajo es facilitar la conversación y asegurarme de que todo el mundo tenga voz; lo contrario de que mi voz sea más significativa o esté por encima de la de cualquier otro, eso es algo que no siento en absoluto.

**Probablemente es difícil juzgar el trabajo de otros compañeros de profesión.**

Lo cierto es que a mí me resulta muy fácil. No digo que sea una cualidad positiva, pero me sale así.

**¿Qué necesita una película para llamar su atención, para que la juzgue positivamente, para que sea una buena Concha de Oro?**

La sensación de que no la puedo abarcar. Que posea algo que va más allá del lenguaje. Que sea una ventana que se abre a ventanas que se abren a más ventanas. Cuando una obra se encasilla se vuelve algo común. También busco, para mí mismo, emoción, cuando de repente siento que lo que la cámara ha grabado está conectado con la humanidad. No con la amabilidad, sino con la humanidad, con el hecho de ser humano. Es lo mismo para la literatura. Si Proust es el mejor escritor para mí es porque me parece infinito.

**¿Qué papel están cumpliendo los festivales en estos tiempos de pantallas portátiles y domésticas?**

Son cruciales porque dan a los espectadores la oportunidad de descubrir, y de hacerlo de forma colectiva. Me gusta mucho este festival. Todo el mundo aplaude antes de la película con la sintonía inicial. Están diciendo: “estamos aquí juntos en la misma sala, estamos compartiendo un espacio juntos, a diferencia de estar en casa con el teléfono”.

**¿Ve el impacto de la IA más con optimismo o con temor?**

No sé si tengo algo que aportar a ese debate. En el tipo de películas que yo quiero hacer y que quiero ver, la IA tiene muy poco espacio.

**¿Identifica puntos formales o temáticos comunes en el cine actual?**

Igual que hago con mi propio trabajo busco menos los temas que la individualidad. Busco las cosas que hacen que una película sea diferente, no las cosas que las hacen similares. Me interesa el cine personal en el que alguien transmite algo que es único para sí mismo, como individuo y como artista.